# AGINTARIAK ETA LANGILERIA

## Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

### JAURLARITZAREN LEHENDAKARITZA

## 4812

*EBAZPENA, 2011ko irailaren 15ekoa, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendariarena, erakunde honetako goi-kargudunaren idazkari lanpostu bat izendapen askez betetzeko deialdia ebazten duena.*

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 46.2.c) artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, hau

XEDATU DUT:

Lehenengoa.– Montserrat Samaniego Pérez andrea Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko idazkari nagusiaren goi-kargudunaren idazkari izendatzea (520010 kodea, 115 dotazioa).

Bigarrena.– Ebazpen honek 2011ko irailaren 21etik aurrera izango ditu ondorioak.

Hirugarrena.– Ebazpen honek administrazio-bidea amaitzen du. Beraz, aurka egiteko, aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkez dakioke ebazpena hartu duen organoari, hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta biharamunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke, Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian, hil biko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko irailaren 15a.

Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendaria,
MARÍA SILVESTRE CABRERA.